

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Funtsezko elkarteak aurrera eramatea beharrezkoa da enpresak proposaturiko helburuak bete ahal izateko. Gainera, negozio-eredua optimizatzeko, arriskuak murrizteko eta baliabideak eskuratzeko baliogarriak dira.

Gure enpresaren funtsezko zenbait bazkide eta hornitzaile nagusi hurrengoak dira: kotxeak fabrikatzen dituzten enpresak, gure produktua (alkoholimetroa) ekoiztuko duen enpresa eta alkohola kontsumitzen duten pertsonekin tratatzen duten elkarteak.

Autoen hornitzaileei dagokionez, hornitzaileen zerrenda bat izango dugu, norberaren beharrak asetzeko produkturik eta zerbitzurik onenak eskaintzen dituenak. Kalitatearekin konprometituta, gure negozioarako irtenbiderik onena eskaintzen duena aukeratuko dugu.

Alkoholimetroa guretzat soilik ekoiztuko da, patentatua baitago, eta, beraz, enpresa zehatz bat arduratuko da haren ekoizpenaz, baita haren konponketaz ere (funtsezko jarduerak puntuan azaltzen den bezala).

Bezeroei zuzentzeari dagokionez, alkohola kontsumitzen duten pertsonekin tratatzen duten elkarteekin batzea beharrezkoa izango da. Izan ere, haien ezaugarri psikikoak hoberen ezagutzen dituzten pertsonak dira; gure produktuaren irudia, publizitatea, etab. bideratzeko balio izango zaiguna.

